



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko martxoaren 11

37. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Plana aldatzea eskatzen da, eraikitze-irizpideak malgutze aldera familia bakarreko etxebizitza bakartuetarako, ohiko bizileku iraunkorra izateko direnean. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eskatzen zaio uholdeen aurrean prebentzio-politika bat abiaraz dezan, uztartuko dituen ingurumen-interesak eta Nafarroako zenbait udalengan urtero-urtero errepikatzen diren arazoaren errealitatea. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren Batzordeak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, zenbait erakunde autonomotako hornidura-kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Zerga Ogasunarekin indarrean dauden zerga-zorrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, langabeziaren aurka borrokatzeko “Gazte Bermea” izeneko ekintzarekin lotutako jarduketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Osasunaren zorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, 8-14/PEI-00279 espediente zenbakia duen informazio eskaerari emandako erantzunari eta hari erantzuteko egin beharreko bilaketa-lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, gaixoak ez joateagatik kontsulta medikoak bertan behera gelditzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, 2012an, 2013an eta 2014an Gaixoen Erregistro Orokorreko itxaronzerrendetan hitzordura ez joateagatik aplikatu diren bajei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, energia berriztagarrien ekoizleen tributuzko zorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, ondarearen gaineko zergaren ondorioz 2012 eta 2013ko ekitaldietan izandako diru-sarrerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

- Galdera, nazioarteko adopzioarako entitate lankideen eta haien zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen arteko kontratu-harremanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, larrialdietako erradiologia-aparatuen eta angiografoaren mantzentze-lanetarako kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, larrialdi-zerbitzu berriko langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietako eskaner berriaren kokalekuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, larrialdietako eraikin berriko odol-biltegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, autokarabana-turismoaren edo turismo ibiltariaren bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, gizarte-intereseko deklarazioa eskatu duten kultura-sustatzaileei deklarazio hori onartzeko edo ukatzeko proposamena aztertze epeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, “osasunerako zentimoari” buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Tafallako Espezialitateen Zentroa eraikitze proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Tuterako KPF enpresaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Plana aldatzea eskatzen da, eraikitze-irizpideak malgutze aldera familia bakarreko etxebizitza bakartuetarako, ohiko bizileku iraunkorra izateko direnean.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Batzordeak, 2015eko martxoaren 6an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Plana aldatzea eskatzen da, eraikitze-irizpideak malgutze aldera familia bakarreko etxebizitza bakartuetarako, ohiko bizileku iraunkorra izateko direnean." Erabakia heldu da Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu zuten mozio batetik, zeina 2015eko otsailaren 20ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter dezan, ukitutako udalei entzun ondoren, Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Planeko 27. eta 28. artikulua aldatzeko aukera, maiatzaren 16ko 44/2011 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa, eraikitze-irizpideak malgutze aldera familia bakarreko etxebizitza bakartuetarako, ohiko bizileku iraunkorra izateko direnean."

Iruñean, 2015eko martxoaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eskatzen zaio uholdeen aurrean prebentzio-politika bat abiaraz dezan, uztartuko dituen ingurumen-interesak eta Nafarroako zenbait udaletan urtero-urtero errepikatzen diren arazoaren errealitatea.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Batzordeak, 2015eko martxoaren 6an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eskatzen zaio uholdeen aurrean prebentzio-politika bat abiaraz dezan, uztartuko dituen ingurumen-interesak eta Nafarroako zenbait udaletan urtero-urtero errepikatzen diren arazoaren errealitatea."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eskatzen dio prebentzio-politika bat abiaraz dezan, uztartuko dituen ingurumen-interesak eta urtero-urtero eragiten dituzten uholdeek sortutako arazoaren errealitatea, zeinak ekidin baitaitezke drainatzeen eta gure ibaien garbiketa egokiaren bidez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio inplikazio aktiboago bat izan dezan gure ibaiei eta gure ibaien mantentze-lanei dagozkien erabakiak hartzean, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du Ebroko Konfederazio Hidrografikoari exijitza uholde kasuetarako jarduketaren protokolo zehatz bat, zeinean argituko baitira administrazio bakoitzaren eskumenak –tokiko administrazioarenak, autonomia erkidegoarenak eta zentralarenak–, ez dadin berriz gerta

ibaiek gainezka egiten dutenean gaur egun gertatzen den nahasmena bezalakorik, eta ex ante argi zedarriturik geldi daitezten administrazio bakoitzaren erantzukizunak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio uholde-eremuen mapa bat egin dezan, eta horietako bakoitzari dagozkion diru-laguntzak zehatz ditzen.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio nekazaritzako azpiegiturarako kalteak ordaintzeko konpromiso argia har dezan, Espainiako Gobernuari eskatutako ohiz kanpoko laguntzetan sartzen ez direnak, ekidite aldera toki administrazioentzat kaltegarriak izatea, aurreko uholdeetan gertatu zen bezala.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio kreditu-erreserba bat egin dezan eta ondoren diru-laguntzen deialdi bat, behar adina diru edukitze aldera bermekin konpon daitezten herrietako lubetak, herri horiei tratu bertsua eman dakien eta jarduketa global bat egin dadin, udal batzuk besteen ginetik jarri gabe.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio akordio bat egin dezan Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin, erantzun azkar bat emanen diena herrien galderei eta beharrezane, Konfederazioak dituen eskumenekin bat."

Iruñean, 2015eko martxoaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, zenbait erakunde autonomotako hornidura-kontratuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Samuel Caro Sádaba jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zenbait erakunde autonomotako hornidura-kontratuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 14ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du. Hau jakin nahi du: “-Nafarroako 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuko 44. artikuluari buruz -Erakunde autonomo jakin batzuetako hornidura kontratuak-, non esaten baita O-NOZen mendeko zentroek produktu freskoak erosi ahalko dituztela, hornitzaileei hamabostean behin eskaintza-eskaria eginez, urteko esleipenera jo behar izanik gabe: Zer erakunde autonomori buruz ari gara? Zer diru-kopuru ordaintzen dira urtean kontzeptu horiek direla-eta? Produktuak ematen dituzten enpresa hornitzaileen zerrrenda jaso nahi dugu. 2011, 2012, 2013 eta 2014ko datuak ematea eskatzen dut” (8-14PES-00218). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Proiektua zer erakunde autonomori buruz ari den, bada, Osasun Departamentuari dagokionez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari buruz ari da bakar-bakarrik, eta honako fitxategi hau erantsi dizugu:

– Produktu freskoak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko azaroaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

ERANSKINA **Produktu freskoen erosketak**

Urtea	Zenbatekoa
2011	1.013.117
2012	1.014.375
2013	165.089
2014	77.282

Hornitzaileak - 2011. urtea

INTERMEAT 2 SA (0010022673)
 MARÍN RUIZ,SANTOS, (0010250661)
 COMERCIAL IRATI SL (0010032377)
 SDA SOCIEDAD DISTRIBUIDORA (0010028570)
 MARTÍNEZ DE QUEL SL (0010028917)
 CRASAN SL (0010036984)
 INDUSTRIAS CÁRNICAS ERANSUS SL (0010045784)
 ZUAZU 2001 SL (0010770825)
 ALLI VALLES, PEDRO JESÚS (0010268615)
 GOZASI SA (0010020601)
 MATADERO DE PAMPLONA SA (0010022554)
 ASTIZ SANZ, JUAN,CARLOS (0010229507)
 FRUTAS REDONDO SL (0010037862)
 GOÑI ARRIETA, ENRIQUE (0010128570)
 CARNICERÍAS MILTON SLL (0010044829)
 HERMANOS ALDAY SL (0010034698)
 ALUSALDU SLU (0010043603)
 ORRIO ARBIZU, RAÚL, (0010466662)
 PESCADOS MARTINA-ESTELLA SL (0010808041)
 ERANSUS LIZANZU, JOSÉ LUIS (0010398973)
 SOCIEDAD COOPERATIVA DE HOSTELERÍA (0010067136)
 DISTRIBUIDORA DE CONGELADOS (0010030295)
 HERMANOS VALENCIA GIL SL (0010043049)

COMERCIAL GOSARIAK SL (0010038749)
 PESCAIRUÑA SL (0010038556)
 VACUNO DE NAVARRA SL (0010046468)
 PARAFRES ALLI SL (0011122829)
 PESCADOS GJA PAMPLONA SL (0010036261)
 ARAGONESA DE PIENSOS SA (0010024312)
 FRUTAS SHEILA SA (0010018569)

Hornitzaileak - 2012. urtea

FRUTAS SHEILA SA (0010018569)
 PESCADOS GJA PAMPLONA SL (0010036261)
 ARAGONESA DE PIENSOS SA (0010024312)
 VACUNO DE NAVARRA SL (0010046468)
 PESCAIRUÑA SL (0010038556)
 PARAFRES ALLI SL (0011122829)
 COMERCIAL GOSARIAK SL (0010038749)
 HERMANOS VALENCIA GIL SL (0010043049)
 ERANSUS LIZANZU, JOSÉ LUIS (0010398973)
 DISTRIBUIDORA DE CONGELADOS (0010030295)
 PESCADOS MARTINA-ESTELLA SL (0010808041)
 ALUSALDU SLU (0010043603)
 SOCIEDAD COOPERATIVA DE HOSTELERÍA
 (0010067136)
 JUAN JOSE RICO SL (0010040627)
 CARNICERÍAS MILTON SLL (0010044829)
 GOZASI SA (0010020601)
 ASTIZ SANZ, JUAN CARLOS (0010229507)
 FRUTAS REDONDO SL (0010037862)
 GOÑI ARRIETA, ENRIQUE (0010128570)
 MATADERO DE PAMPLONA SA (0010022554)
 ORRIO ARBIZU, RAÚL, (0010466662)
 CRASAN SL (0010036984)
 MARTÍNEZ DE QUEL SL (0010028917)
 INDUSTRIAS CÁRNICAS ERANSUS SL (0010045784)
 SDA SOCIEDAD DISTRIBUIDORA (0010028570)
 COMERCIAL IRATI SL (0010032377)
 ZUAZU 2001 SL (0010770825)
 MARÍN RUIZ, SANTOS, (0010250661)
 URDICIAIN COMERCIAL DE (0010929666)

2013ko hornitzaileak

FRUTAS SHEILA SA (0010018569)
 ARAGONESA DE PIENSOS SA (0010024312)
 PESCADOS MARTINA-ESTELLA SL (0010808041)
 GOÑI ARRIETA, ENRIQUE (0010128570)
 PESCADOS GJA PAMPLONA SL (0010036261)
 FRUTAS REDONDO SL (0010037862)
 CARNICERÍAS MILTON SLL (0010044829)
 ASTIZ SANZ, JUAN CARLOS (0010229507)
 GOZASI SA (0010020601)
 PESCAIRUÑA SL (0010038556)
 VACUNO DE NAVARRA SL (0010046468)
 PARAFRES ALLI SL (0011122829)
 COMERCIAL GOSARIAK SL (0010038749)
 ALUSALDU SLU (0010043603)
 HERMANOS VALENCIA GIL SL (0010043049)
 ERANSUS LIZANZU, JOSÉ LUIS (0010398973)
 ZUAZU 2001 SL (0010770825)
 DISTRIBUIDORA DE CONGELADOS (0010030295)
 JUAN JOSE RICO SL (0010040627)
 MATADERO DE PAMPLONA SA (0010022554)
 SDA SOCIEDAD DISTRIBUIDORA (0010028570)
 ORRIO ARBIZU, RAÚL, (0010466662)
 CRASAN SL (0010036984)
 COMERCIAL IRATI SL (0010032377)

2014ko hornitzaileak

PESCADOS MARTINA-ESTELLA SL (0010808041)
 ASTIZ SANZ, JUAN CARLOS (0010229507)
 CARNICERÍAS MILTON SLL (0010044829)
 GOZASI SA (0010020601)
 FRUTAS REDONDO SL (0010037862)
 ARAGONESA DE PIENSOS SA (0010024312)
 GOÑI ARRIETA, ENRIQUE (0010128570)
 COMERCIAL GOSARIAK SL (0010038749)
 SDA SOCIEDAD DISTRIBUIDORA (0010028570)
 PESCAIRUÑA SL (0010038556)

Galdera, Nafarroako Zerga Ogasunarekin indarrean dauden zerga-zorrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Zerga Ogasunarekin indarrean dauden zerga-zorrei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko urriaren 30eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako Maiorga Ramírez Erro foru parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Zerga Ogasunarekin indarrean dauden zerga-zorrei buruz (8-14/PES-0195). Galdera hori 2014ko urriaren 23ko 2848 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Excel dokumentu bat erantsi da. Hor zehazten dira eskatutako lau ataletako zenbatekoak, indarrean dauden zerga-zorrei dagokienez: zorren guztizko zenbatekoa; milioi bat eurotik gorako zorra duten zergadunen kopurua; onartutako geroratzeen kopurua, zor-tarteen arabera; eta 2000tik onartu diren geroratzeen zerrenda, urteko zenbatekoaren arabera.

Erantzuna honako irizpide hauei lotzen zaie:

1.- a) letrako galderan, indarrean dagoen zortzat hartzen da zerga-zor osoa, hau da, mugaeguneratua eta mugaeguneratugabea.

Hala, zor mugaeguneratugabea litzateke epeak mugaeguneratu gabe dituen zor geroratua, geroratze zain dagoen zorra (geroratzea onartze izapideak egiten ari dira), eta PFEZaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kuotaren bigarren epeak, 2014ko azaroaren 20an mugaeguneratzen direnak.

Zor mugaeguneratua litzateke ordaintzeko epeak mugaeguneratuta eta ordaindu gabe dituen, hau da, betearazpen aldiaren dagoena.

2.- b) letrako galderan, milioi bat eurotik gorako zor mugaeguneratua nahiz mugaeguneratugabea duten zergadunen kopurua azaltzen da.

3.- c) letran, geroratze-akordioen kopurua ematen da, zor-tarteen arabera. Hori d) letrarekin bat etor dadin, 2000tik aurrerako informazioa azaltzen da.

4.- d) letran azaltzen da zenbat geroratze onartu diren 2000tik, eta guztira zenbat egiten duten, urteka.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko azaroaren 20an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

a) Indarrean dauden zerga-zorren zenbateko osoa, mugaeguneratua eta mugaeguneratugabea.

Erantzuna: 962.565.889,40

b) Milioi bat eurotik gorako zor mugaeguneratua nahiz mugaeguneratugabea duten zergadunen kopurua.

Erantzuna: 122

c) Zor aitortuen geroratzeei buruz sinatutako akordio-kopurua, ondokoak zehaztuta: zenbatek duten milioi bat eurotik 5 milioi eurora bitarteko zorra; zenbatek 5 milioi eurotik 10 milioi eurora bitarteko zorra; zenbatek 10 milioi eurotik 15 milioi eurora bitarteko zorra; zenbatek 15 milioi eurotik 20 milioi eurora bitarteko zorra; zenbatek 20 milioi eurotik 30 milioi eurora bitarteko zorra; zenbatek 30 milioi eurotik 40 milioi eurora bitarteko zorra; zenbatek 40 milioi eurotik 50 milioi eurora bitarteko zorra, eta zenbatek 50 milioi eurotik goitikoa.

Erantzuna

Abiapuntutzat hartuko dugu 2000. urtea, d) erantzunarekin bat etortzeko.

1 eta 5 milioi euro bitarte: 61

5 eta 10 milioi euro bitarte: 9

10 eta 15 milioi euro bitarte: 1

15 eta 20 milioi euro bitarte: 0

20 eta 30 milioi euro bitarte: 0

30 eta 40 milioi euro bitarte: 0	2011	11.137	135.832.313,96
40 eta 50 milioi euro bitarte: 0	2010	9.701	141.334.127,29
50 milioi baino gehiago: 0	2009	7.567	126.173.928,75
d) Sinatutako geroratze kopuruaren zerrenda, 2000tik gaur arte urtez urte adierazia, geroratze horien urteko zenbateko osoa zehaztuta.	2008	4.254	64.153.692,39
Erantzuna	2007	3.793	67.922.975,65
2014ko datuak urriaren 31ra artekoak dira	2006	3.824	58.906.336,89
	2005	3.255	44.466.195,69
	2004	3.020	38.012.254,04
	2003	2.657	39.539.035,81
	2002	2.531	34.983.148,91
	2001	2.060	30.563.996,44
	2000	1.875	31.953.625,94

Galdera, langabeziaren aurka borrokatzeko “Gazte Bermea” izeneko ekintzarekin lotutako jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, langabeziaren aurka borrokatzeko “Gazte Bermea” izeneko ekintzarekin lotutako jarduketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko urriaren 30eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gazteentzako Enplegu Programa Operatiboan egindako jarduketei buruz (PES-196). Galdera hori urriaren 23ko 2853 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

2013an Europar Batasunak gazteen bermerako sistema ezartzea erabaki zuen, 25 urtetik behera-ko gazteek lan eskaintza ona, etengabeko hezkuntza, ikastuntzako prestakuntza edo praktika aldian jaso zezaten, ikasketa formalak bukatu edo langabezian geratu ondoko lau hilabeteko epean.

Gazte Ekimenerako Europako Funtsen banaketa bideratzeko eta gazteen bermearren sistema

egituratzeko, Estatuko Gobernuak, autonomia erkidegoekin batera, Europako Gizarte Funtsaren barruan Gazteentzako Enplegu Programa Operatiboa abian jartzea erabaki du. Programa operatibo horren xedea da gazteen langabezia tasa murrizten laguntzea, kualifikazioen hobekuntza eta gazteen kontratazioaren nahiz autoenpleguaren sustapena direla medio.

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerio egindako programa operatiboa Europako Batzordeak aztertzeke fasean dago orain, eta espero da urtea bukatu baino lehenago onetsiko dela batzorde horren erabakiz. Batzordeari igorritako programa operatiboaren testua Interneteko esteka honen bidez ikus daiteke:

http://www.empleo.gob.es/ficheros/garantiajuvenil/documentos/Programa_Operativo_Empleo_Juvenil.pdf

Gazteentzako Enplegu Programa Operatiboan Nafarroak jaso duen finantza-esleipena 8.853.047,50 eurokoa da. Diru kopuru horri Nafarroako Gobernuaren kofinantzaketa gehitu behar zaio: 2.395.530 euro. Beraz, Nafarroako Gazteentzako Enplegu Programak guztira 11.248.577,50 euroko kostua izanen du. Programa operatibo hori burutzeko epea 7 urtekoa izanen da (2014-2020).

Hauek dira Nafarroako Gazteentzako Enplegu Programa Operatiboaren jarduketak ildoak:

1) Enplegurako prestakuntza.

Lehentasunez kotzat jotzen da gazte horien lanbide-trebakuntza xede duten prestakuntza-ekintzak egitea. Neurri horiek Hezkuntza Departamentuan, Miguel Servet fundazioan eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan garatuko dira.

2014tik 2017ra bitartean, Hezkuntza Departamentuak oinarritzko lanbide heziketako zikloak eta lanbide-tailerrak eginen ditu 15-17 urte bitarteko gazteentzat, bai sare publikoan bai ikastetxe itundu eta irabazi-asmorik gabeko entitateen bidez, 4.542.578 euroko kostuarekin.

2014tik 2017ra bitartean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak aurreikusten du kolektibo horrentzako prestakuntza ekintzak finantzatzea 1.943.024 euro jarritz.

2014an eta 2015ean, Miguel Servet fundazioak lanetik kanpoko praktikak finantzatu ditu 56.976 euro jarritz.

2014an, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jada abian jarri ditu kolektibo horrentzako zenbait prestakuntza-ekintza. Zehazki, honako ekintza hauek burutu dira, azaltzen diren parte-hartzaileekin:

IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA	IKASLEAK
Oinarritzko automatismo elektrikoak	120	2014/10/01	4
Automobilak eta motoak mantentzea	130	2014/09/29	14
Automatizaziorako eta komunikazioetarako PLC sistemak	90	2014/10/20	2
DJ produktorea	120	2014/10/01	5
Sukaldeko laguntzailea	120	2014/10/06	14
Zerbitzaria	120	2014/10/06	14
Ikus-entzunezko komunikazio digitalerako ikus-entzunezko edukien sorrera	120	2014/10/13	3
Sortu zure online denda	90	2014/10/13	2
Proiektuak PMiren arabera kudeatzeko metodologia	90	2014/10/13	1
Zure ordenagailua mantentzeko behar duzun guztia: hardwarea, sistemak eta sare lokalak	120	2014/10/15	4
Web erreminta kutxa	90	2014/11/05	1
Nola sortu zure online denda	130	2014/03/10	15
Nola sortu zure online denda	30	2014/06/02	2
Android gailuen programazioa	100	2014/04/28	2
Automobilaren elektromekanika (duala)	210	2014/10/01	7
Gaitasun tekniko eta profesionalak	90	2014/09/15	4
Mintegi, lorategi eta lorezaintza-zentroetako jarduera lagungarriak	250	2014/06/26	20
Jatetxe eta tabernetako oinarritzko eragiketak	210	2014/08/25	1
Elikagaien industriako elikagaigintzako eragiketa lagungarriak	260	2014/08/25	15
Kirol instalazioetako jarduerak eta funtzionamendua antolatze eragiketa lagungarriak	180	2014/10/01	19
Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte erakundeetan	370	2014/08/11	15
Ibilgailuen karrozeria mantentzeko eragiketa lagungarriak	270	2014/06/20	15
Sistema domotikoak eta imotikoak muntatzea eta mantentzea	360	2014/08/18	10
Basoak zaindu eta hobetzeko jarduera lagungarriak	230	2014/09/26	11
Ereku irekien eta industria instalazioen garbiketa	130	2014/09/26	7
Estaldura arin eta teknikoetarako oinarritzko eragiketak eraikuntzan	270	2014/09/24	11
Etxeko iturgintza eta berokuntza-girotze eragiketak	320	2014/06/20	20
Biltegiko jarduera lagungarriak	170	2014/07/16	20
Eraikin eta lokaletako gainazal eta altzarien garbiketa	150	2014/06/30	19
Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa gizarte erakundeetan	370	2014/08/05	1
Ikus-entzunezko multimedia produktu interaktiboaren garapena	460	2014/07/02	15
Ile-apainketa	240	2014/09/22	15
Txirbil-harroketak bidezko mekanizazioa	260	2014/11/28	15
Nazioarteko merkataritzaren kudeaketa aurreratua	230	2014/04/07	14
Nazioarteko finantzaketa	180	2014/10/23	8
Inst. elektroteknikoak muntatzeko eta mantentzeko eragik. lagungarriak	300	2014/09/25	14
Txirbil-harroketak bidezko mekanizazioa	210	2014/10/06	12
Osasun garraioa	400	2014/03/20	20
Airea girotzeko eta berritu-kanporatzeko instalazioen proiektuen garapena	210	2014/04/28	8
Airea girotzeko eta berritu-kanporatzeko instalazioen proiektuen garapena	280	2014/09/08	10
Etxeko iturg., berok. eta girotze eragiketak	320	2014/09/03	11
Jatetxe-tabernetako oinarritzko erag.	210	2014/09/04	20

Beraz, 42 ikastaro egin dira, 8.610 orduko iraupena izan dute eta guztira 440 lagunek parte hartu dute.

2) Enplegurako orientazioa.

Kolektibo horrentzat bereziki zaila da laneratzeari, ez dutelako lan-esperientziarik eta ez dakitelako nola funtzionatzen duen lan-merkatuak. Horregatik, lehentasunezko helburua da banakako aholkatze neurriak garatzea, haien laneratzeari sustatzen lagunduko dutenak. Nafarroako Enplegu Zerbitzuko langileek emanen dute berariazko orientazio hori.

2015etik 2018ra bitartean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ildo horretan 810.000 euroko gastua egitea aurreikusten du.

3) Enplegagarritasuna sustatzea.

Kolektibo hori lan merkatuan sar dadin sustatzea funtsezko beste ildo bat da, haien lan-esperientzia areagotzeko eta, hartara, haien etorkizunerako lan aukerak hobetzeko. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Nazioarteko Proiektzioaren Zerbitzuak garatuko dituzte neurri horiek.

2014tik 2016ra bitartean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ildo horretan 2.540.000 euroko gastua egitea aurreikusten du.

Atal horretan berariazko jarduketak hauek egitea aurreikusten da:

- Prestakuntzarako eta enplegurako programa mistoak (800.000 euro)
- Kontrataziorako zuzeneko laguntzak. (1.000.000 euro)
- Familia eta lana bateratzeko zerbitzuetan laneratzeko laguntzak. (40.000 euro).

- Toki entitateen kontrataziorako diru-laguntzak. (700.000 euro)

2014tik 2020ra bitartean, Nazioarteko Proiektzioaren Zerbitzuak nazioarteko praktiketarako beken programa finantzatu du; guztira 1.356.000 euro jarriko ditu.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 2014an toki entitateei diru-laguntzak emateko deialdia onetsi du, langabezian dauden gazteak kontrata ditzaten, 25 urtetik beherakoak edo, desgaitasuna badute, 30 urtetik beherakoak. Deialdi horretarako 355.948,66 euroko kreditua onartu da, eta kolektibo horrekin sinatutako 39 kontratu finantzatzeko diru-laguntza eman da.

Halaber, NAO on argitaratzeko dagoen deialdi baten bitartez diru-laguntza emanen da langabezian dauden 25 urtetik beherako gazteak edota 30 urtetik beherako gazte desgaituak kontratatzearen ondoriozko lan-kostuen zati bat ordaintzeko. Gazte horiek berdintasuna sustatzeko eta bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzeko plan eta neurriak prestatuko dituzte eta horien jarraipena eta ebaluazioa egingen dute. Deialdi horretarako kreditua 20.000 eurokoa da.

Nazioarteko Proiektzioaren Zerbitzuak 2014an Nafarroa - Nazioarteko Praktiketarako Beken deialdi bat onetsi du, 178.000 eurokoa, eta 23 beka onartu dira, baina onuradunetako batek uko egin dio bekari eta azkenik 22 beka eman dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko azaroaren 20an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Osasunaren zorrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasunaren zorrari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 7ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko zergatik ez duten Nafarroako Gobernuak eta Zerga Ogasunak konponbide bat nahiz geroratze edo kobratze formula bat planteatzen Osasunaren zorraren kasuan (8-14/PES-0200). Galdera hori 2014ko urriaren 30eko 2936 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak horri dagokionez ematen duen informazioa:

Aditzera eman den bezala, Club Atlético Osasunak bere konponbide proposamena aurkeztu die Nafarroako Parlamentuari eta parlamentu-tal-

deei, foro honetan egin dadin eztabaida eta hemen erabaki daitezen beharrezkotzat jotzen diren neurriak. Nafarroako Zerga Ogasunaren jarduna tasaturik dago; zerga-bilketari buruzko araudi indarduna bete behar du, eta araudi horrek ematen dizkion eskumenak eta ahalmenak ditu. Zuhurtasun printzipio zentzuzkoari jarraituz, Nafarroako Zerga Ogasunak itxaron egin behar du harik eta Parlamentuak, legean ezarritako prozeduren bidez (foru lege bat onartzea etab.), auzi honetaz erabaki arte. Osasunarentzat araubide berezia onetsiko balitz, Zerga Administrazioak betearazi egin beharko luke, nola ez; eta halakorik onetsi ezean, legeria indardunaren arabera prozeduretan aurrera jarraituko litzateke. Gogorarazi behar dugu, ordea, azkenean erabakitzen den konponbidea erabakitzen dela ere, kontuan hartu behar direla bai foru araudiak Parlamentuaren esku uzten dituen aukerak bai Europako araudiak ezartzen dituenak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko azaroaren 26an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, 8-14/PEI-00279 espediente zenbakia duen informazio eskaerari emandako erantzunari eta hari erantzuteko egin beharreko bilaketalaneei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 8-14/PEI-00279 espediente zenbakia duen informazio eskaerari emandako erantzunari eta hari erantzuteko egin beharreko bilaketa-laneei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 14ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 8-14/PEI-00279 espediente zenbakia duen informazio eskaerari emandako erantzunari eta hari erantzuteko egin beharreko bilaketa-laneei buruz (8-14/PES-00217). Hau da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

Itzulketei buruz egindako galderak eta horren testuinguruak interpretazio askotarako bidea eman lezake. Honako PES-00217 galdera honek

dioen bezala, 4. galderak erreferentzia egiten die aurreko hirurei eta horiek erreferentzia egiten diete bai hasitako espedientei bai formalizatutako adopzioei.

Adopzioa eskatzen denean hasten da espediente. Prozesua luzea da eta hasitako espediente horiei dokumentazio osagarria gehitzen zaie prozeduran zehar. Hasitako espediente batek ez du zertan berekin ekarri jatorrizko herrialdeak txostenak itzultzea, gerta baitaiteke txostenik eman ez izana. Adopzio prozesuan, hainbat inguruabar tarteko, gerta daiteke eskatzaileek prozesua bertan behera uztea. Jatorrizko herrialdearen ezezkoa izan daiteke arrazoia, baina beste askotan, gehienetan, eskatzaileek berek hartzen dute erabaki hori, beren inguruabar pertsonalak edota adopzio herrialdea aldatu direlako. Eta hori guztia gerta daiteke baita aurretiazko esleipenik egin gabe eta jatorrizko herrialdeak harrera herrialdera inolako dokumentaziorik bidali gabe ere. Beraz, 4. galdera egin zenean, gure interpretazioa ez genuen inondik inora lotu hasitako espedienteen datuarekin, sarritan horrek ez duelako esan nahi inolako jarduketarik egin denik jatorrizko herrialdean.

Horiek horrela, itzulketa kontzeptua egindako adopzioei aplikatu besterik ez zitzaigun geratzen. Adopzio guztiak jatorrizko herrialdean egiten dira, eta ez adingabea harrera herrialdera ekarrita. Beraz, inoiz ere ez dugu termino hori lotu oraingoran aipatu duzuen Hagako Hitzarmenaren 21. artikuluan xedatutakoarekin.

Baldin eta, oraingoran adierazi den bezala, "itzulketei" buruzko galderak erreferentzia egiten badio Hagako Hitzarmenaren 21. artikuluan ezarritakoari, esan behar dugu nazioarteko adopzio guztietan jatorrizko herrialdeak adopziorako baimena eman behar duela adingabea herrialde horretatik irten baino lehen. Betiere adopzioaren eskatzaileak dira jatorrizko herrialdera doazenak, behin agiri guztiak eskuratu eta izapidetu ondoren. Hagako Hitzarmenak aurreikusten duen kasua, adingabeak harrera herrialdetik jatorrizko herrialdera itzultzeari dagokionez, ez da bidezkoa.

Adingabea lekuz aldatzen ez bada (Hagako Hitzarmenaren 19.3 artikulua), txostenak, halakorik bada, itzuli egiten dira: harrera herrialdeak emandako txostenak (egokitasunari buruzko txostena) jatorrizko herrialdeak itzultzen ditu, eta adingabea-ri buruzko txostenak harrera herrialdeak itzultzen ditu.

Azken kasu horretan Adopzioaren eta Familia Harreraren Ataleko buruaren txostena eransten dugu, bukatu ez diren espedienteen kopuruari

buruzkoa, eta bertan azaltzen da zer zailtasun sortu diren egindako eskaerari aurre egin ahal izateko. Nolanahi ere, zure eskura jartzen ditugu artxibo osoa eta lan-espedienteak, nahi baduzu azter ditzazun, gure bulegoetan, kontu handiz erabiltzeko informazioa baita eta Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legean ezarritako neurriak hartu behar baitira hura babesteko.

Adingabeaz ari garen guztietan arreta osoz ibili behar gara, adingabeen inguruan egiten diren jarduketak guztien helburu nagusiak haien babesa eta lehentasunezko onura direlako, beste edozeren gainetik.

Itzulketak aipatzea -izan baitira itzulketak, izan ere- oso gai sentikorretan sakontzea da. Adingabeak adopziozko familiarekin denbora luzea eman ondoren, familia hori egoerari eutsi ezinik eta guraso-eginkizunei aurre egin ezinik aurkitu da.

Dena den, eskatutakoaren interpretazioan egindako akatsa ikusirik, barkamena eskatzen dizugu bihotzez. Ez dugu inor mindu nahi izan, ezta gutxiago ere; aitzitik, adopzioaren esanahiari buruz sentsibilizatu eta are gehiago sakondu nahi izan dugu, elkartasunezko eta guztizko eskuzabal-tasunezko keinu gisa aurkeztuz.

Hona hemen aipatutako txostena:

Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailearentzako txostena

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztutako parlamentu-galdera (8-14/PEI-00279) dela eta, hau adierazten da:

- *Ezin da espediente informatikotik lortu herrialdeek atzera bidalitako espedienteen "itzulketen" datua.*

- *Itzultako espedienteen kopurua zehaztu ahal izateko, "Artxibatuta, atzera egin delako" kontzeptuaren pean itxi diren espedienteak ikusi beharko lirateke (paperean). Horien barruan daude herrialdera bidali ondoren itxitako espedienteak (118) eta esleipen fasean itxitako espedienteak (22).*

- *Badugu 4 espedienteren erreferentzia, daten hurbiltasunagatik, espediente itxi izanarena, eskaera izapidetu zen herrialdeak hala erabakita:*

- *2013/02/06, Peruk bidegabekotzat jo zuen espediente, familiar seme biologiko batek AFHa zeukalako. NFBIRi Nuevo Futuro NAE-Lak jakinarazi zion, bera baitzen entitate kreditazioduna, espediente izapidetu zuena herrialde horretan.*

- 2014/02/26. Kolonbiako ICBFk eskaera bertan behera utzi zuen, eskatzaileak ez zuelako bere alabaren jaiotza jakinarazi eta ez zuelako handik sei hilabetera beste eskaera bat egin. ICBFk ofizioa bidali zion NFBIn.
- 2014/03/24. Kolonbiatik espedientea atzera bidali zen; iraungita zegoen, ez zelako berritu dokumentazioa (zigor aurrekarien agiria eta osasun agiria). Familiak NAELarekin itxia zuen 2011/08/31n.

- 2014/05/30. Ixteko ebazpena heldu zen Perutik, eskatzailearen haurduntza jakinarazi zelako, herrialde hartako irizpidearen arabera.

Iruñean, 2014ko azaroaren 26an

Adopzioaren eta Familia Harreraren Ataleko burua: Maite Miguez San Román

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 5ean

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, gaixoak ez joateagatik kontsulta medikoak bertan behera gelditzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eva María Gorri Gil andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gaixoak ez joateagatik kontsulta medikoak bertan behera gelditzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 14ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eva María Gorri Gil andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, gaixok hitzordura huts egiteagatik sendagilearen kontsultak bertan behera gelditu izanari buruz (8-14/PES-00201 eta PES-00202). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Parlamentu-galderan eskatutako datuak azaldu baino lehen beharrezkotzat jotzen dugu tauletan erabilitako kontzeptuak argitzea, hitzordura bertan

behera uztearen eta hitzordura huts egitearen arteko bereizketa eginez.

– **Hitzordua bertan behera uztea.** Erreserbatutako egun-orduetan ezin joan, eta gaixoak aurretiaz bertan behera uzten du hitzordua, dela kontsultarako hitzordua, dela ebakuntza kirurgikorako edo proba osagarrirako hitzordua. O-NOZera aurretiaz deitu duenez, bere orde bestea gaixo batek hartu ahal izanen du hitzordua, eta, arrazoiak justifikatua izan bada, beste egun baterako hitzordua ematen zaio. Gogorazi behar da gaixok hitzordua bertan behera uzteko eta geroratzeko eskubidea dutela, betiere horretarako arrazoi justifikatuak badaude.

– **Hitzordura huts egitea.** Gaixoa ez doa hitzordura eta ez du alde aurretik abisatzen. Hitzordu hori galdu egiten da eta huts egin duen gaixoa itxarote-zerrendatik kentzen dute, ez baditu geroago modu proaktiboan azaltzen huts egin izanaren arrazoi justifikatuak.

Galderaren testuan ez dago oso argi hitzordua modu proaktiboan bertan behera uzteaz ari den, edo hitzordua bertan behera utzi gabe huts egiteaz, edo biez. Beraz, bien datuak aurkezten dira, bereizita.

GAIXOAK HITZORDUA BERTAN BEHERA UZTEA

Oinarrizko osasun laguntzan bertan behera gelditutako kontsulten kopurua, eta kontsulta guztien aldean egiten duten ehunekoa

Datu hori ez da gaur egun oinarrizko osasun laguntzan ustiatzen.

Especialistaren kontsultetan bertan behera gelditutako kontsulten kopurua, eta egiten duten ehunekoa

	2012		
	GUZTIRA		
	Programatutako hitzorduak	Erabiltzaileek bertan behera utzitakoak	%
O-NOZ, GUZTIRA	1.103.628	137.845	% 12,5

	2013		
	GUZTIRA		
	Programatutako hitzorduak	Erabiltzaileek bertan behera utzitakoak	%
O-NOZ, GUZTIRA	1.097.540	128.628	% 11,7

Ebakuntzetan bertan behera gelditutako kontsulten kopurua, eta egiten duten ehunekoa.

	2012			2013		
	Egindako ebakuntzak	Erabiltzaileek bertan behera utzitakoak	%	Egindako ebakuntzak	Erabiltzaileek bertan behera utzitakoak	%
O-NOZ, GUZTIRA	32.932	1.081	% 3,3	32.343	1.202	% 3,7

Larrialdi zerbitzuetara joan eta azkenean artatuak ez izatea erabaki zuten pertsonen kopurua

	2012			2013		
	Joandakoak	Artatu gabeak	%	Joandakoak	Artatu gabeak	%
O-NOZ, GUZTIRA	238.443	782	% 0,3	238.377	1.321	% 0,6

O-NOZek ematen dituen bestelako zerbitzuetan bertan behera utzitakoen kopurua, kasuko unitatea zehaztuta

Puntu honetan, bertan behera utzitako proba diagnostikoen berri ematen dugu.

	2012			2013		
	Egindako probak	Erabiltzaileek bertan behera utzitakoak	%	Egindako probak	Erabiltzaileek bertan behera utzitakoak	%
O-NOZ, GUZTIRA	415.362	37.482	% 9,0	423.309	36.799	% 8,7

Horrek guztiak O-NOZi ekarri dion kostu ekonomikoaren zehaztapena, modu orokorrean nahiz arloz arlo zehaztuta

Bertan behera uzte proaktibo horietan gaixo batek beste gaixo bati lekua uzten dio eta ezin da kalte ekonomikorik zenbatu, ez dagoelako halako kalterik.

HUTS EGINDAKO HITZORDUAK

Oinarrizko osasun laguntzan huts egindako kontsulten kopurua, eta kontsulta guztien aldean egiten duten ehunekoa

	2012			2013		
	Ikusitako hitzorduak	Ez da agertu	%	Ikusitako hitzorduak	Ez da agertu	%
O-NOZ, GUZTIRA	4.897.177	130.605	% 2,7	4.821.305	130.662	% 2,7

Espezialistaren kontsultetan huts egindako kontsulten kopurua, eta egiten duten ehunekoa

	2012		
	GUZTIRA		
	Programatutako hitzorduak	Ez da agertu	%
O-NOZ, GUZTIRA	1.103.628	74.310	% 6,7

	2013		
	GUZTIRA		
	Programatutako hitzorduak	Ez da agertu	%
O-NOZ, GUZTIRA	1.097.540	74.275	% 6,8

Ebakuntzetan huts egindako kontsulten kopurua, eta egiten duten ehunekoa.

	2012			2013		
	Egindako ebakuntzak	Ez da agertu	%	Egindako ebakuntzak	Ez da agertu	%
O-NOZ, GUZTIRA	32.932	74	% 0,2	32.343	102	% 0,3

O-NOZek ematen dituen bestelako zerbitzuetan huts egindako hitzorduen kopurua, kasuko unitatea zehaztuta

Puntu honetan, bertan behera utzitako proba diagnostikoen berri ematen dugu.

	2012			2013		
	Programatutako probak	Ez da agertu	%	Programatutako probak	Ez da agertu	%
O-NOZ, GUZTIRA	415.362	17.936	% 4,3	423.309	17.347	% 4,1

Huts egindako hitzordu horiek O-NOZi ekarri dioten kostu ekonomikoaren zehaztapena, modu orokorrean nahiz arloz arlo zehaztuta

Kostu ekonomikoaren zehaztapena aurkezten da, erreferentzia gisa harturik O-NOZen tarifa ofizialak, NAO-n argitaratutakoak. Espezialistaren kontsultetan, oinarrizko osasun laguntzan eta larrialdietan egin daiteke zehaztapen hori.

	2012	2013
	GUZTIRA	GUZTIRA
HUTS EGINDAKO HITZORDUEN KOSTUA. ESPEZIALISTA	12.966.307,32	13.008.811,52
HUTS EGINDAKO HITZORDUEN KOSTUA. LARRIALDIK	225.583,54	381.068,87
HUTS EGINDAKO HITZORDUEN KOSTUA. OOL. MEDIKUA	5.523.616,08	5.370.819,84
HUTS EGINDAKO HITZORDUEN KOSTUA. OOL. PEDIATRA	1.149.309,36	1.161.745,20
HUTS EGINDAKO HITZORDUEN KOSTUA. OOL. ERIZAINZA	2.007.218,07	2.062.667,43
GUZTIRA	21.872.034,37	21.985.112,86

Huts egindako hitzorduen kopurua murrizteko O-NOZek aurreikusten dituen ekintzak

Datuak irakurrita argi ikus daitekeenez, huts egindako hitzorduak garrantzizko arazoa dira kudeaketarako, eta gainera gaixoei berei eragiten diete, huts egiten duten pertsonak alde aurretik abisatuko balute itxarote-zerrendako beste gaixo batzuek hartuko bailituzkete haien lekuak.

Horregatik, O-NOZek bi neurri jarri ditu abian, huts egindako hitzorduen kopurua murrizte aldera:

– SMS bidezko hitzordu-abisua ezartzearen bideragarritasuna aztertzea. Lehenengo hedapena egiten ari da Nafarroako Ospitaleguneko 4 zerbi-

tzutan (Traumatologia, Dermatologia, ORL eta Oftalmologia). Eraitzen azterketatik abiatuta, gainerako zerbitzu eta zentroetara hedatzeko aukera baloratuko da.

– Komunikazio kanpaina, herritarrek ohar daitezkeen hitzordu batera joan ezin denean abisatzea norberaren eta gainerako gaixoen onerako dela. Diseinu fasean dago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, 2012an, 2013an eta 2014an Gaixoen Erregistro Orokorreko itxaronzerrendetan hitzordura ez joateagatik aplikatu diren bajei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eva María Gorri Gil andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2012an, 2013an eta 2014an Gaixoen Erregistro Orokorreko itxaronzerrendetan hitzordura ez joateagatik aplikatu diren bajei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 14ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eva María Gorri Gil andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, gaixoen hitzordura huts egiteagatik sendagilearen kontsultak bertan behera gelditu izanari buruz (8-14/PES-00201 eta PES-00202). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Parlamentu-galderan eskatutako datuak azaldu baino lehen beharrezkotzat jotzen dugu tauletan erabilitako kontzeptuak argitzea, hitzordua bertan behera uztearen eta hitzordura huts egitearen arteko bereizketa eginez.

– **Hitzordua bertan behera uztea.** Erreserbatutako egun-orduetan ezin joan, eta gaixoak aurretiaz bertan behera uzten du hitzordua, dela kontsultarako hitzordua, dela ebakuntza kirurgikorako edo proba osagarrirako hitzordua. O-NOZera aurretiaz deitu duenez, bere orde bestea gaixo batek hartu ahal izanen du hitzordua, eta, arrazoia justifikatua izan bada, beste egun baterako hitzordua ematen zaio. Gogorazi behar da gaixoek hitzordua bertan behera uzteko eta geroratzeko eskubidea dutela, betiere horretarako arrazoi justifikatuak badaude.

– **Hitzordura huts egitea.** Gaixoa ez doa hitzordura eta ez du alde aurretik abisatzen. Hitzordu hori galdu egiten da eta huts egin duen gaixoa itxarote-zerrendatik kentzen dute, ez baditu geroago modu proaktiboan azaltzen huts egin izaren arrazoi justifikatuak.

Galderaren testuan ez dago oso argi hitzordua modu proaktiboan bertan behera uzteaz ari den, edo hitzordua bertan behera utzi gabe huts egiteaz, edo biez. Beraz, bien datuak aurkezten dira, berezita.

GAIXOAK HITZORDUA BERTAN BEHERA UZTEA

Oinarrizko osasun laguntzan bertan behera gelditutako kontsulten kopurua, eta kontsulta guztien aldean egiten duten ehunekoa

Datu hori ez da gaur egun oinarrizko osasun laguntzan ustiatzen.

Espezialistaren kontsultetan bertan behera gelditutako kontsulten kopurua, eta egiten duten ehunekoa

	2012		
	GUZTIRA		
	Programatutako hitzorduak	Erabiltzaileek bertan behera utzitakoak	%
O-NOZ, GUZTIRA	1.103.628	137.845	% 12,5

	2013		
	GUZTIRA		
	Programatutako hitzorduak	Erabiltzaileek bertan behera utzitakoak	%
O-NOZ, GUZTIRA	1.097.540	128.628	% 11,7

Ebakuntzetan bertan behera gelditutako kontsulten kopurua, eta egiten duten ehunekoa.

	2012			2013		
	Egindako ebakuntzak	Erabiltzaileek bertan behera utzitakoak	%	Egindako ebakuntzak	Erabiltzaileek bertan behera utzitakoak	%
O-NOZ, GUZTIRA	32.932	1.081	% 3,3	32.343	1.202	% 3,7

Larrialdi zerbitzuetara joan eta azkenean artatuak ez izatea erabaki zuten pertsonen kopurua

	2012			2013		
	Joandakoak	Artatu gabeak	%	Joandakoak	Artatu gabeak	%
O-NOZ, GUZTIRA	238.443	782	% 0,3	238.377	1.321	% 0,6

O-NOZek ematen dituen bestelako zerbitzuetan bertan behera utzitako kopurua, kasuko unitatea zehaztuta

Puntu honetan, bertan behera utzitako proba diagnostikoen berri ematen dugu.

	2012			2013		
	Egindako probak	Erabiltzaileek bertan behera utzitakoak	%	Egindako probak	Erabiltzaileek bertan behera utzitakoak	%
O-NOZ, GUZTIRA	415.362	37.482	% 9,0	423.309	36.799	% 8,7

Horrek guztiak O-NOZi ekarri dion kostu ekonomikoaren zehaztapena, modu orokorrean nahiz arlo arlo zehaztuta

Bertan behera uzte proaktibo horietan gaixo batek beste gaixo bati lekua uzten dio eta ezin da kalte ekonomikorik zenbatu, ez dagoelako halako kalterik.

HUTS EGINDAKO HITZORDUAK

Oinarrizko osasun laguntzan huts egindako kontsulten kopurua, eta kontsulta guztien aldean egiten duten ehunekoa

	2012			2013		
	Ikusitako hitzorduak	Ez da agertu	%	Ikusitako hitzorduak	Ez da agertu	%
O-NOZ, GUZTIRA	4.897.177	130.605	% 2,7	4.821.305	130.662	% 2,7

Espezialistaren kontsultetan huts egindako kontsulten kopurua, eta egiten duten ehunekoa

	2012		
	GUZTIRA		
	Programatutako hitzorduak	Ez da agertu	%
O-NOZ, GUZTIRA	1.103.628	74.310	% 6,7

	2013		
	GUZTIRA		
	Programatutako hitzorduak	Ez da agertu	%
O-NOZ, GUZTIRA	1.097.540	74.275	% 6,8

Ebakuntzetan huts egindako kontsulten kopurua, eta egiten duten ehunekoa.

	2012			2013		
	Egindako ebakuntzak	Ez da agertu	%	Egindako ebakuntzak	Ez da agertu	%
O-NOZ, GUZTIRA	32.932	74	% 0,2	32.343	102	% 0,3

O-NOZek ematen dituen bestelako zerbitzuetan huts egindako hitzorduen kopurua, kasuko unitatea zehaztuta

Puntu honetan, bertan behera utzitako proba diagnostikoen berri ematen dugu.

	2012			2013		
	Programatutako probak	Ez da agertu	%	Programatutako probak	Ez da agertu	%
O-NOZ, GUZTIRA	415.362	17.936	% 4,3	423.309	17.347	% 4,1

Huts egindako hitzordu horiek O-NOZi ekarri dioten kostu ekonomikoaren zehaztapena, modu orokorrean nahiz arloz arlo zehaztuta

Kostu ekonomikoaren zehaztapena aurkezten da, erreferentzia gisa harturik O-NOZen tarifa ofizialak, NAO n argitaratutakoak. Espezialistaren kontsultetan, oinarrizko osasun laguntzan eta larrialdietan egin daiteke zehaztapen hori.

	2012	2013
	GUZTIRA	GUZTIRA
HUTS EGINDAKO HITZORDUEN KOSTUA. ESPEZIALISTA	12.966.307,32	13.008.811,52
HUTS EGINDAKO HITZORDUEN KOSTUA. LARRIALDIAK	225.583,54	381.068,87
HUTS EGINDAKO HITZORDUEN KOSTUA. OOL. MEDIKUA	5.523.616,08	5.370.819,84
HUTS EGINDAKO HITZORDUEN KOSTUA. OOL. PEDIATRA	1.149.309,36	1.161.745,20
HUTS EGINDAKO HITZORDUEN KOSTUA. OOL. ERIZAINZA	2.007.218,07	2.062.667,43
GUZTIRA	21.872.034,37	21.985.112,86

Huts egindako hitzorduen kopurua murrizteko O-NOZek aurreikusten dituen ekintzak

Datuak irakurrita argi ikus daitekeenez, huts egindako hitzorduak garrantzizko arazoa dira kudeaketarako, eta gainera gaixoei berei eragiten diete, huts egiten duten pertsonen alde aurretik abisatuko balute itxarote-zerrendako beste gaixo batzuek hartuko bailituzkete haien lekuak.

Horregatik, O-NOZek bi neurri jarri ditu abian, huts egindako hitzorduen kopurua murrizte aldera:

– SMS bidezko hitzordu-abisua ezartzearen bideragarritasuna aztertzea. Lehenengo hedapena egiten ari da Nafarroako Ospitaleguneko 4 zerbi-

tzutan (Traumatologia, Dermatologia, ORL eta Oftalmologia). Emaitzen azterketatik abiatuta, gainerako zerbitzu eta zentroetara hedatzeko aukera baloratuko da.

– Komunikazio kanpaina, herritarrak ohar daitezzen hitzordu batera joan ezin denean abisatzea norberaren eta gainerako gaixoen onerako dela. Diseinu fasean dago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, energia berriztagarrien ekoizleen tributu-zorrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, energia berriztagarrien ekoizleen tributu-zorrari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 7ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga (aurrerantzean EEEBZ) Nafarroako Foru Komunitatean ordaintzeari buruz (8-14/PES-0198). Galdera hori 2014ko urriaren 30eko 2926 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Estatuan EEEBZ onetsi zen Energia Iraunkortasunerako Zerga Neurriei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legearen bidez. Zergari buruzko funtsezko arauak I. tituluko 1.-11. bitarteko artikuluetan (bi horiek barne) jaso ziren, eta zergaren indarraldia 2013ko urtarrilaren 1ean hasi zen, azken xedapenetako bosgarrenak ezarritakoaren arabera.

2. Nafarroako Foru Komunitateak 24/2012 Foru Legearen bidez onetsi zuen zerga hori. Estatuako zerga eta Nafarroakoa egun berean jarri ziren indarrean. Estatuako araudian aurreikusi gabeko salbuespen bat ezarri zuen foru arauak: energia elektrikoa ekoizteko instalazioen titularrak salbuespenak ziren, instalatutako potentzia izenduna 100 kW-etik gorakoa ez bazen instalazio bakoitzeko, eta titularrek produkzio ekipamenduak berritzen bazituzten, produkzioa handituko zuten ekipamendu berriak ezarri.

3. Estatuako legearen 2. artikulua xedatzen duenez, zerga hori Espainiako lurralde osoan aplikatu behar da, ezertan eragotzi gabe zergen arloko foru araubideak, kasu honetan Nafarroako foru araubidea.

4. Estatuaren eta Nafarroako Autonomia Erki-degoaren arteko finantza eta zerga harremanak arautzen dituen hitzarmen ekonomikoak ez zituen

orduan ezartzen, ezta orain ere, zerga horren harmonizaziorako behar diren arauak, hau da, ez ditu zehazten ez administrazio batek edo besteak zerga ordainarazteko behar diren lotura puntuak, ez zerga-bilketaren finantza-ondorioak.

5. Konstituzio Auzitegiak, 2014ko ekainaren 26an emandako epaian, konstituzio-kontrakotasuneko 5559/2013 errekurtsoa ebatziz, aurreko 2. puntuan aipatutako 24/2012 Foru Legea konstituzio-kontrakoa eta deuseza dela deklaratu du. Hala, deuseztatu egin du Nafarroako Parlamentuak ezarritako zerga.

6. Beraz, hona epai horren lehenengo ondorioa: Foru Komunitateak ezin du zerga hori ordainarazi.

7. Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (AEAT) bigarren ondorio bat atera du: Nafarroan ere aplikagarria dela Estatuako 15/2012 Legea, eta, beraz, Foru Komunitateko lurraldean kokatutako instalazio guztien jabeek, txiki nahiz handi, aitortzen aurkeztu eta zerga ordaindu behar diotela Estatuako Ogasunari, legea indarrean jarri zenetik (2013ko urtarrilaren 1a), goian azaldutako salbuespenak, foru araudian aurreikusitakoak, ez daudelako Estatuako legerian.

8. Aurreko paragrafoan aipatutako bigarren ondorio horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak ez dago ados. Konstituzio Auzitegiaren epaiak ez du horrelakorik ezartzen ez bere oinarri juridikotik ez azken ebazpenean. Are gehiago, Estatuak prozesuan zeukan ordezkariak berak eskatu zion Auzitegiari berariazko erabakia hartzeko gaiari buruz, eta Auzitegiak, erabaki horren bigarren oinarri juridikoko C) letran, hau xedatzen du: "Uzi horrek prozesu honen mugak gainditzen ditu". Eta hau ere ezartzen du: "Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoaren izaera guztiz objektibo eta abstraktua dela eta, ezin da hartan baliarazi errekurtutako legearen aurkaratze edo defentsa hutsetik haragoko interesik". Alegia, ez da zentzuzkoa Nafarroan Estatuako legea aplikatu nahi izatea Konstituzio Auzitegiaren erabaki horretan edo beste erabaki batzuetan oinarrituta. Hori guztia gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateak uste du bere zerga edo tributu araubidea -hau da, ez zerga jakin batzuk, baizik eta zerga araubide osoa, oro har, arauketa partzialak ez ezik prozedura eta koordinazio arauak ere biltzen dituen Estatuarekiko "itunaren" bidez harmonizatu behar dela, eta aurretiazko itunaren beharrezkotasun

horrek Estatuari ere eragiten diola, Nafarroako lurraldean zergak aplikatu nahi baditu.

9. Beraz, Hitzarmen Ekonomikoan horrelakorik aurreikusi ez denez, Estatuak ezin du EEEBZ Nafarroan aplikatu, eta, beraz, Nafarroako lurraldean kokatutako instalazioen titularrei ezin die eskatu ez zerga horren aitorpenik aurkezteko ez dirurik ordaintzeko. Ez titular handiei ez txikiei, titular bakar bati ere ez. Legez ezarritako prozeduren bidez Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa onesten denean eta indarrean jartzen denean, orduantxe eta ez lehenago, hura bete beharko da eta aldaketan jasotzen diren arauetara egin beharko zaie.

10. Nafarroako Zerga Ogasunetik gai honi buruz ematen ari diren jarraibideei dagokienez,

adierazi behar dugu beren osoan bat datozela goian azaldutakoarekin. Foru Komunitateko lurraldean kokatutako instalazioen titularrek informazioa eskatzen diotenean, Nafarroako Zerga Ogasunak jakinarazten die une honetan ez daudela behartuta EEEBZ dela-eta Estatuko Zerga Administrazioari inolako aitorpenik aurkeztera edo ezer ordaintzera, eta Hitzarmen Ekonomikoan egitekoa den aldaketa indarrean jartzen denean zehaztuko dela titular horiek betebeharririk baduten ala ez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko azaroaren 25ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, ondarearen gaineko zergaren ondorioz 2012 eta 2013ko ekitaldietan izandako diru-sarrereri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ondarearen gaineko zergaren ondorioz 2012 eta 2013ko ekitaldietan izandako diru-sarrereri buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 14ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, ondarearen gaineko zergaren ondorioz 2012 eta 2013ko ekitaldietan izandako diru-sarrereri buruz (PES-0219). Galdera hori 2014ko azaroaren 6ko 3045 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

2011ko, 2012ko eta 2013ko zergaldietako ondarearen gaineko zerga dela-eta Nafarroako Zerga Ogasunari aurkeztu zaizkion aitorpenen erregistroetan ageri denez, gaur egun honako hau da aitortzaileek sartu beharreko kuota, guztira:

Sartu beharreko kuota. ONDAREAREN GAINEKO ZERGA

	2011ko zergaldia 2014ko abendua	2012ko zergaldia 2014ko abendua	2013ko zergaldia 2014ko abendua
Sartu beharreko kuota (euroak) c85 dato1	41.806.705,36	47.845.956,69	47.841.524,80

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, nazioarteko adopzioarako entitate lankideen eta haien zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen arteko kontratu-harremanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, nazioarteko adopzioarako entitate lankideen eta haien zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen arteko kontratu-harremanari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 14ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du nazioarteko adopzioarako entitate lankideen eta haien zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen arteko kontratu-harremanari buruz, ordainketa-baldintzei eta aurrekontuari dagokienez (8-14/PES- 00204). Hau da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

1.- Ba al dakite Gizarte Politiketako Departamentuak eta haren menpeko erakundeek, adopzioaren arloan eskudun direnek, hasierako kontratuan izenpetutako kopuruetan igoerak gertatzen direla adopzio prozesuan zehar?

Bai, gertatu diren igoerak Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak baimendu baititu (PEI 281 erantzunean jada aipatu ziren egindako aldaketak), Nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateen kreditazioa arautzen duen uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuan ezarrita dagoen moduan.

2.- Ba al dute Gizarte Politiketako Departamentuak eta haren menpeko erakundeek, adopzioaren arloan eskudun direnek, kontrol-ahalmenen bat bi aldeek egindako kontratuan hasiera batean ezarritako kopuruetan izaten diren igoeren gainean?

Bai, goian aipatutako uztailaren 2ko 168/2002 Foru Dekretuaren 20. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean.

Kreditazioaren aurretik Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak baimentzen ditu zuzeneko gastuak eta tarifa-prezioa, eta gero NFBik berak baimentzen ditu, kasua bada, eskatutako igoerak.

Ildo horretatik, azpimarratu behar da egindako aldaketa guztiak araudi aplikagarriaren babespean daudela.

3.- NAGELek aurkezten duten urteroko kontabilitate-auditorian, zehazten al dira ordainketa-baldintzen klausulei eta espedientearen aurrekontuari buruzko hasierako kontratuarekin bat ez datozen igoera horiek?

Nafarroako Foru Komunitatean kreditatuta dauden entitateek aurkeztu dituzten auditorietan ez da ageri prezioen aldaketen ondorioz egindako igoerarik.

Nolanahi ere, behin igoera horiek baimenduta koan, aditzera eman behar dira, eta NAGEL bakoitzak nazioarteko adopzioen eskatzaileekin egiten dituen kontratu pribatuei aplikatu behar zaizkie, aplikatu beharreko arauan jasotakoa oinarritzat harturik.

4.- Gizarte Politiketako Departamentuak eta haren menpeko erakundeek, adopzioaren arloan eskudun direnek, uste al dute igoera horiek zorrozki bat datozela araudi indardunarekin?

Bai, goian aipatutako uztailaren 2ko 168/2002 Foru Dekretuaren 20. artikuluan eta hurrengoetan jasotako aurreikuspenekin bat datozelako.

5.- Uste al du Gizarte Politiketako Departamentuak aipatutako igoerak bat datozela, arrazoiz, egiazko kostuekin?

Bai. Baimendu diren igoerak justifikatuak eta arrazoituak dira, eta aipatutako araudiaren babespean daude.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 11n

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, larrialdietako erradiologia-aparatuen eta angiografoaren mantentze-lanetarako kontratuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Samuel Caro Sádaba jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, larrialdietako erradiologia-aparatuen eta angiografoaren mantentze-lanetarako kontratuei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du, honako hau jakiteko, larrialdietako erradiologia-aparatuen eta angiografoaren mantentze-lanetarako kontratuei dagokienez: "Zer kontratu mota eta zer enpresarekin dago formalizaturik erradiologia-aparatuen eta angiografoaren mantentze-lanetarako eta laguntza teknikorako? Aparatu horien matxurak uneoro -hau da, 24 ordu, urteko 365 egunetan- zerbitzu-estaldurapean al daude?" (8-14PES-00223). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Larrialdietako Zerbitzuak ez dauka berariazko angiograforik eraikinean. O-NOZeko angiografo bakarra Nafarroako Ospitaleko B pabiloian dago, Siemens markakoa da, mantentze-lanetarako arrisku orotako kontratua dauka fabrikatzailearekin, eta hau da zerbitzu teknikoaren ordutegia: 08:30-18:30, astelehenetik ostiralera.

Erradiologiako tresnak fabrikatzaileekin kontraturik daude, eta ez dute zerbitzu teknikorik gaez eta jaiegunetan.

Larrialdietako eraikin berriko X izpien tresnek, berme aldian daudenez, ez dute mantentze-lanetarako kontraturik, baina kontratudunek bezalako prestazioak dituzte, mantentze-lanei eta ordutegiei dagokienez.

Gaez edo jaiegunetan matxuraren bat gertatzen denean, Nafarroako Ospitaleguneak elektromedikuntzako tresneriaren mantentze-lan orokorretarako kontraturik daukan enpresako teknikariek konpontzen dute.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, larrialdi-zerbitzu berriko langileei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Samuel Caro Sádaba jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, larrialdi-zerbitzu berriko langileei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du honako hau jakiteko: "Gobernuaren ustez, langileria hori behar bezala dimentsionatuta al dago? Medikua, erizain, erizaintzako laguntzaile eta zeladore kopuruari buruz ari gara. Nola kalkulatu da zenbat pertsona behar diren esparru bakoitzean?" (8-14PES-00224). Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

Uste dugu langileria behar bezala dimentsionatu dela aipatutako zerbitzurako. Hala ere, konpromisoa hartu da eta etengabeko jarraipena egiten ari da, funtzionamendurik onena lortzen ez den aldietan indartu egin dadin, egunero detektatzen diren beharren arabera. Era berean konpromisoa hartu da ebaluazioa egiteko hiru, sei eta hamabi hilabeteren buruan, hartara, behar izanez gero, doiketa egiteko guztizko kopuruan edo presentzien banaketa partzialean, hiru txandetan zehar (goizekoa, arratsaldekoa eta gauekoa) edo asteko egunetan zehar.

Profesionalen kopurua kalkulatzeko kontuan hartu dira alderdi hauek:

- Jarduerari dagokion esperientzia eta behar diren baliabideak, abiapuntu izan ziren aurreko bi zerbitzuen (garai bateko Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko Larrialdiak) ezagutza zehatzaren ondorioz.

- Dimentsio berriak eta leku fisikoa. Joan-etorri ohikoenen (batez ere erradiologiako probetarako eta ospitaleratzeko joan-etorriak) distantzia berriak.

- Gaixoen jarraipena egiteko eta non dauden jakiteko laguntza sistemak (HCI, kokapen pantailak eta barra-kodeak).

- Eskatzen den artapen jardueraren arabera zenbatetsitako lan-zama.

- Larrialdi Zerbitzuko arduradunek egindako plan funtzionala garatzea, zerbitzu berriaren anto-laketarako euskarri gisa.

Guztira 33 pertsona gehitu zaizkio plantillari, honela banaturik:

a. Medikuak

Guztira 45 mediku daude; mediku bat gehitu da.

2014ko epe honetako txandakako presentziak 2013ko epe berekoekin alderatuta, ikusten dugu txandakako presentzia hauek ditugula orain: 14 mediku goizez, 9 arratsaldez eta 5 gauez (asteburuetan 9-9-5). Eta 2013ko epe berean presentzia hauek izan genituen: 13 mediku goizez (bat gutxiago), 8 arratsaldez (bat gutxiago) eta 4 gauez (bat gutxiago). Asteburuetan, berriz, 8-8-4, hots, mediku bat gutxiago zegoen txandetako bakoitzean.

Azpitarratu behar dira, halaber, 2014ko epe honetako datu hauek:

- Asteburuetan egoiliarren estaldura goizeko 8etatik aurrerakoa da.

- Lanegunetan albokoek estaltzen dituzte goizak harik eta egoiliarrak 15:00etan guardian sartzen diren arte.

- Egoiliarrak 12 dira egunero, lehen bezala.

- Gaueko behaketarako medikua dago. Lehen ez zegoen.

- Triaiea koordinatzeko medikuaren figura ezarri da (08:00-22:00).

Eta 2013ko epe berean, aldiz, ez zegoen ez mediku koordinatzailearik ez Behaketako gaueko estaldurarik.

b. Erizainak

Guztira 73 erizain daude lanaldi osoarekin eta 20 lanaldi partzialarekin. Lanaldi osoko 6 erizain eta lanaldi partzialeko erizain bat gehitu dira.

2014ko epe honetako txandakako presentziak aurreko urteko epe berekoekin alderatuta, ikusten dugu orain 18 erizain ditugula goizeko txandan,

beste 18 arratsaldeko txandan eta 12 gaueko txandan. Iaz 16 zeuden goizez, 16 arratsaldez eta 10 gauez (txanda bakoitzean bi gutxiago).

c. Laguntzaileak

Guztira 44 laguntzaile daude lanaldi osoarekin eta 14 lanaldi partzialarekin. Lanaldi osoko 6 eta lanaldi partzialeko 4 gehitu dira.

Txandakako presentziak 12 dira goizeko txandan, 12 arratsaldekoan eta 6 gauekoan. 2013ko epe berean 10 ziren goizeko txandan, 10 arratsaldekoan eta 6 gauekoan; beraz, orain bi gehiago daude goizeko eta arratsaldeko txandetan, eta ez dira aldatu gaueko txandakoak.

d. Zeladoreak

Guztira 49 zeladore daude lanaldi osoarekin eta 11 lanaldi partzialarekin. Kasu honetan lanaldi osoko 5 zeladore eta lanaldi partzialeko 3 zeladore gehitu dira.

Azpitarratzekoa da, zeladoreei dagokienez, lehengo Larrialdi Zerbitzuan bazirela % 100ean bermatu gabeko presentziak, zeladoreek beste eginkizun batzuk bete behar zituztelako ospitaleko beste atal batzuetan, hala nola laborategian edo ospitaleratze-solairuetan.

Epe honetako txandakako presentziak, iazko epe berekoan aldean, hauek dira: aurten 10 zeladore goizez, 13 zeladore arratsaldez eta 9 zeladore gauez, eta iaz, berriz, 10 zeladore goizez, 11 arratsaldez eta 9 gauez.

e. Erradiodiagnostikoko teknikariak (ERT)

Guztira 20 daude. Estamentu honetan ez da gehikuntzarik izan. Lanpostuak berrantolatu egin dira Erradiologia zerbitzu zentraletatik, bi zentroetan.

Txandakako presentziak, iaz bezala, hauek dira: 5 ERT goizeko txandan, 6 arratsaldekoan eta 4 ERT gaueko txandan.

Erradiologia geletan 4 ERT daude goizeko txandan, 5 arratsaldekoan eta 3 gauekoan, 09:40tik 00:20ra arteko txanda aldarreko laguntza barne. Ordutegi horretatik kanpo, 3 daude goizez, 4 arratsaldez eta 2 gauez.

Gainera, EKO-TAK gelan ERT bat dago goizez, beste bat arratsaldez eta beste bat gauez.

f. Erradiologiako erizainak

Erizain bat dago goizeko txandan, beste bat arratsaldeko txandan eta beste bat gaueko txandan EKO eta TAK gelan.

g. Eta, azkenik, administrari laguntzaileak

Guztira 22 daude lanaldi osoarekin eta 4 lanaldi partzialarekin. Lanaldi osoko 6 eta lanaldi partzialeko bat gehitu dira.

2014ko epe honetako txandakako presentziak 2013koekin alderatuko ditugu: 2014an 4 daude goizeko txandan, 4 arratsaldekoan eta 2 gauekoan Larrialdi Orokorretan; eta 2 goizeko txandan, 2 arratsaldekoan eta bat gauekoan Ama-haurren Larrialdietan.

2013an, berriz, 3 zeuden goizeko txandan, 4 arratsaldekoan eta 2 gauekoan Larrialdi Orokorretan; eta bat goizeko txandan, bat arratsaldekoan eta bat gauekoan Ama-haurren Larrialdietan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko abenduaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietako eskaner berriaren kokalekuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Samuel Caro Sádaba jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietako eskaner berriaren kokalekuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietako eskaner berriaren kokalekuari buruz, hau jakiteko: "Eskaner horren kokalekua egokiena al da, ala hobe izanen zen beste kokaleku bat, erreanimazio-eremutik gertuagokoa?" (8-14PES-00225). Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

Nafarroako Ospitalegunea bezalako ospitaleetan (politraumatizatuak artatzeko berariazko unitaterik gabekoetan) erreanimazio-eremuaren ondoren TAK bat eduki beharra iradokitzen duen frogazientifikorik ez dago.

TAK makina erreanimazio-gelatik 40 metrora dago, azpi-azpian, eta osasun langileek bakarrik erabil dezakete harainoko igogailua. Lau minutu eskas behar dira igogailuan iristeko, eta matxuratzten bada, badago beste igogailu bat.

Lehenengo A Larrialdietan TAK makina 210 metrora zegoen (15 bat minutu), eta lehenengo B Larrialdietan 90 metrora zegoen (8 bat minutu). Azpimarratu behar da, beraz, sekulako hobekuntza izan dela larrialdi zerbitzu berriko TAK makina-egungo kokapena lehenengo kokapenaren aldean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, larrialdietako eraikin berriko odol-biltegiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Samuel Caro Sádaba jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, larrialdietako eraikin berriko odol-biltegiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, hau jakiteko: "Larrialdietako eraikin berriko odol-izaki-

nei dagokienez, arduradunek aski direla uste al dute?" (8-14PES-00226). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Larrialdietako eraikin berria zabaldu aurretik, Nafarroako Ospitaleguneko Hemoterapiako jarduera guztiak bateratu ziren, A eta B ospitaleetan banatuta baitzeuden, eta Nafarroako Laborategi Batuan kokatu ziren.

Larrialdietako eraikin berria irekitzean distantziak pixka bat luzatu zirenez, hemoderibatuak presaz eskatzen zirenean bi izozkailu satelite erabiliko zirela planifikatu zen:

- Bata B zentroko larrialdietako kirofanoan dago.
- Bestea larrialdietako eraikin berrian dago.

Bi izozkailuek badaukate odoljario masibo kontrolaezinei aurre egiteko behar den guztia. Horretarako, erabaki zen 0 negatibo taldeko 4 hematiekontzentratu edukiko zirela, larrialdi handietan soilik erabiltzekoak (Nafarroako Ospitaleguneko Transfusio Masiboaren Protokoloa aktibatzen denean), egoera horretan dauden gaixoen hasierako artapenerako. Erabaki hori Ospitaleko Transfusio Batzordeak eskatu zuen. Besteak beste, Hematologiako, Larrialdietako, Onkologia Medikoko, Medikuntza Intentsiboko, Kirurgia Orokorreko,

Toraxeko Kirurgiako, Anestesiako, Bihotzeko Kirurgiako eta Nefrologiako zerbitzuetako profesionalak eta O-NOZeko Hemozaintzako arduradunak osatzen dute batzorde hori eta guztiek onetsi dute protokoloa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, autokarabana-turismoaren edo turismo ibiltariaren bilakaerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, autokarabana-turismoaren edo turismo ibiltariaren bilakaerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du autokarabana-turismoaren bilakaerari buruz (PES-00228). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko

bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Gobernuak daukan informazioa handik eta hemendik bildutakoa da, autokarabanazaleen elkarteek, turismo sektoreko enpresa elkarteek, Federazio Nazionalak, autonomia erkidegoek, Nafarroako udalek, Europako erakundeek eta abarrek emandakoa. Ez daukagu autokarabana-turismoaren edo turismo ibiltariaren azken bost urteetako bilakaerari buruzko azterlan estatistikorik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, gizarte-intereseko deklarazioa eskatu duten kultura-sustatzaileei deklarazio hori onartzeko edo ukatzeko proposamena aztertzeke epeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gizarte-intereseko deklarazioa eskatu duten kultura-sustatzaileei deklarazio hori onartzeko edo ukatzeko proposamena aztertzeke epeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du kultura-sustatzaileen gizarte-intereseko deklarazioei buruz (PES-00229). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak: Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren irailaren 16ko 77/2014 Foru Aginduaren bidez, kultur proiektu eta jarduerak interes sozialekotzat deklaratzeko pro-

zeduraren erregelamendua onesten da (2014ko 191. NAO on argitaratu zen, irailaren 30ekoan).

Erregelamendu horren 13. artikulua honako hau dio:

“13. artikulua. Ebaluazio fasea eta proposamena.

1. Aurreko artikuluan adierazitako jarduerak eginda, Mezenasgoaren Batzordeak Nafarroako Kulturaren Kontseiluari igorriko dio eskaera dagokion dokumentazioarekin, horrek ebalua dezan eta deklarazioa onartzeko edo ukatzeko dagokion proposamena egin dezan.

2. Hogeita hamar eguneko epean gehienez, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita, Nafarroako Kulturaren Kontseiluak deklarazioa onartzeko edo ukatzeko proposamen arrazoitua presatuko du.”

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, “osasunerako zentimoari” buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “osasunerako zentimoari” buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 21eko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2014ko azaroaren 13ko 3119 sarrera-zenbakia duena, “osasunerako zentimoa” deitutakoa –berez, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmentaren gaineko zerga– dela-eta egin beharreko itzulketei buruz (PES 230). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

1.- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C82/12 gaia zela-eta 2014ko otsailaren 27an

emandako epaiaren betearazpen-prozesuaren ezaugarri berezi eta zehatzak direla eta, oso zail gertatzen da, denbora iraganda ere, hark ukituta daudela jotzen duten zergadunek eskatutako kopuruaren kalkulu zehatza egitea.

Horri dagokionez, honako hauek aipa daitezke ebaluazio hori egiteko oztipo nagusi gisa:

a) Itzulketarako eskubidea duten pertsonen kopurua, zeinak hartzen baititu preskribatu ez diren urteetan zerga hori jasan zutela demostratzeko modua duten zergadun guztiak, bidegabeko diru-sarrera itzultze aldera. Dagoeneko 16.000 eskaera baino gehiago egin dira.

b) Itzulketarako eskubide hori justifikatzeko eskatzen diren zehaztasunak, zeren eta hornikuntza bakoitzeko faktura bakoitza zehaztu beharra baitago, eta horrek izugarri handitzen du egindako itzulketa-eskari bakoitzaren erregistro kopurua. Guztira, sistema informatikoan, 700.000 kontsumo-datu baino gehiago kargatu dira.

c) Sistema informatikoan jada kargatuta dauden datu horiei gehitu beharko litzaieke paperean aurkeztutako espedienteak, zeinak asko baitira. Izan ere, eskaria paperean aurkezteko aukera ezin zaie ukatu prozesu honen onuradunei, baina Zerga Berezien eta Bestelako Zergan Atalaren kudeaketa-lana izugarri handitzen du, atal hori baita eskariak izapidetzeko arduraduna. Une honetan, gisa horretako 6.000 espediente baino gehiago daude (paperean aurkeztuak), prozesatu beharrekoak, eta batzuetan gertatuko da datu horiek eta jada grabatuta daudenak bikoiztuta egonen direla, aurreko lerroketan esandakoari jarraituz.

2.- Aurreko guztia dela eta, itzuli beharreko kopuruari buruz kalkulatu diren datu eta aurreikuspenak hurbilketa batzuk baizik ezin dira izan.

Lehenengo hurbilketetako bat 2010etik 2012ra bitarteko diru-bilketa orokorraren kopurua kalkulatzeko egin zen (horiek dira ukitutako aldi nagusiak), eta balizko erreklamazioen % 50eko tasa aplikatu zitzaion. Portzentaje hori izan zen lehenengo unean ZAEAK bere esparruan aintzat hartu zuena. Eragiketa horrek 38 milioi euroko kostua du emaitza.

2.- Hala eta guztiz ere, gero kalkulu zehatzagoak erabili dira, sartzen joan diren espedienteak ikusita; horren arabera, kopurua nabarmen txikiagoa izanen da, 20 milioi euro ingurukoa. Nolanahi ere, fidagarritasun gutxiko aurreikuspenak dira, tasa handiago bat lortzen ez den arte, eskariak sistema informatikoan grabatzeari dagokionez ez ezik, haien berrikuspenari dagokionez ere, zeren eta akatsak, bikoiztasunak, justifikatzeko hutsak eta abar gerta baitaitezke.

3.- Itzuli beharreko kopuruaren bolumenaren jaitzieran eraginen lukeen beste inguruabar bat (oraindik ere modu fidagarrian kalkulatzetik ez dagoena) 2003/96/EE zuzentarauak ezarritako gutxieneko zergapetzearen aplikazioari dagokiona da, zeinak eraginen bailuke 2012ko gasolio-kontsumoarengatik itzultzeko eskatu diren kuoten zati handi bat ezin artatzea, Europako arau hori urratzeagatik. Izan ere, zuzentaru horri jarraituz, soilik itzuli beharko liriateke aipatutako 2003/96/EE Zuzentaruako 4.1 artikulua exijitzen duen gutxieneko zergapetze-maila gaintzen dutenak. ZAEA eta Nafarroako Zerga Ogasuna oraindik ere aztertzen ari dira zein den gai horren aplikazio praktikoa.

Horri dagokionez, zehaztu beharra dago Europar Batzordeak, 2014ko abuztuaren 29an, erantzun egin diola Europar Batasunean Espainiak duen ordezkari iraunkorrari, esanez “zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren bidez bildutako kopuruak itzultzeko betebeharrak ez lituzkeela hartuko sartutako kopuru guztiak, baizik eta soilik Europar Batasunaren araudiak preskribatutako zerga berezien gutxieneko maila gaintzen dutenak”.

4.- ZAEAK erabaki du itzuli beharreko kopuruak kalkulatzeko irizpidea aldatzea, 2003/96/EE Zuzentaruak ez aplikatzea eta, ondorioz, kontzeptu horrengatik itzuli beharreko kopuruak ez murriztea.

5.- Ezin zen bestela izan, zeren eta Nafarroan ZHTSZ ordainarazteko aplikatu behar den araudia Estatukoa bera baita. Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak irizpide berbera erabili behar du zerga horren itzulketari dagokionez.

6.- Bidegabeko diru-sarrera horiek ordaintzeko egutegia honakoa izanen da, gutxi gorabehera:

a) 2014ko azaroan eta abenduan zehar data horietara arte konprobatutako itzulketa espedienteetatik heldu diren kopurua itzuliko dira.

Ildo horretan, jakinarazten dizuegu iragan azaroaren 27an 926.752 euro itzuli zaizkiela 217 zergaduni.

b) 2015ean zehar gainerako kopuruak itzuliko dira, espedienteak direla-eta egiten diren diren egiaztapenen arabera.

c) Eskuz egindako eskaerei dagokionez, organo eskudunek eskaera horiek sistema informatikoetan grabatu eta egiaztatu ahala egingen dira itzulketak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Tafallako Espezialitateen Zentroa eraikitzeke proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tafallako Espezialitateen Zentroa eraikitzeke proiektuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko abenduaren 9ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Tafallako Espezialitate Zentroa eraikitzeke proiektuari dago-kionez, proiektua zertan den, proiekturako jarritako baliabideen zenbatekoa eta jarduketa-aurreikuspenen egutegia jakiteko (8-14PES-00244). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

1) Proiektua zertan den

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen azaroaren 5eko 2014/2009 Ebazpenaren bidez, Tafallako Espezialitate Zentroaren proiektuaren idazketarako eta, kasua bazen, obren zuzendaritza fakultatiborako kontratua ASOARQ Arquitectos Asociados S.L.ri esleitu zitzaion, eta 63.000 euroko gastua (BEZa barne) baimendu zen proiektua eta segurtasun eta osasun azterlana egiteko eta proiektu fasean segurtasuna eta osasuna koordinatzeko.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 24ko 596/2010 Ebazpenaren bidez agindu zen Tafallako Espezialitate Zentroaren oinarritzko proiektuaren idazketa ordaintzeko ASOARQ Arquitectos Asociados S.L.ri, eta 31.500 euroko gastua (BEZa barne) baimendu zen.

– Nafarroako Gobernuaren 2010eko uztailaren 28ko Erabakiaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileari baimena eman zitzaion Tafallako Espezialitate Zentroa eraikitzeke obra kontratatzeke.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abuztuaren 10eko

1619/2010 Ebazpenaren bidez agindu zen Tafallako Espezialitate Zentroaren exekuzio proiektua ordaintzeko ASOARQ Arquitectos Asociados S.L.ri, 31.500 euroko gastua (BEZa barne) baimendu zen eta exekuzio proiektua onetsi zen, 6.104.464,51 euroko aurrekontuarekin (% 18ko BEZa barne).

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abuztuaren 20ko 1676/2010 Ebazpenaren bidez, Tafallako Espezialitate Zentroa eraikitzeke obra kontratatzeke espediente onetsi zen eta 6.104.464,51 euroko gastua (% 18ko BEZa barne) onetsi zen, honela banatuta urtez urte:

25.459,81 euro 2010ean

3.771.439,74 euro 2011n

2.307.564,96 euro 2012an

– Tafallako Espezialitate Zentroa eraikitzeke obraren kontratuaren lizitazioa (OB6/2010) 2010eko abuztuaren 23an argitaratu zen Kontratazio Atarian. Nafarroa 2012 Plana

– 2011ko Aurrekontuko diru-sarreraren eta gastuen bilakaera ikusita, Nafarroako Gobernuak, 2011ko irailaren 7an, gastuen murrizketa onetsi zuen, bai eta hori gauzatzeko jarraibideak ere. Horiek horrela, eta aurrekontu-egonkortasuneko helburua kontuan izanik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen azaroaren 2ko 2135/2011 Ebazpenaren bidez bertan behera utzi zen Tafallako Espezialitate Zentroa eraikitzeke obra esleitzeko prozedura, onura publikoko arrazoiengatik.

2) Proiekturako jarritako baliabideen zenbatekoa

Gaur egun ez dago baliabide ekonomikoen esleipenik obra horretarako.

3) Jarduketa-aurreikuspenen egutegia

Gaur egun ez dago jarduketan planifikaziorik obra horretarako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Tuterako KPF enpresaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako KPF enpresaren egoerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko azaroaren 14ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tuterako KPF enpresaren egoerari buruz (8-14/PES-0203). Galdera hori 2014ko azaroaren 4ko 2978 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona

Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun eta Enpleguako kontseilariak horri buruz ematen dion erantzuna:

Azken hiruhilekoan harremanak eta bilerak egin dira enpresaren ordezkariekin eta informazioa trukatu da balizko aukerei edota erosleei buruz. Azken informazioen arabera, enpresa erosteko zenbait eskaintza egin dira, eta horrek agerian jartzen du badagoela interesa enpresak iraun dezan eta lanpostuak manten daitezen. Eskaintza horiek aurrera egitea espero dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 4an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

